



ECUADOR ETXEA

Irakasle pribilegiatuak, edo nola desprestigiatu hezkuntzako mobilizazioak

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

EAEko irakasle publikoek lan-baldintzarik onenak dituztela esan eta pribilegiatu batzuk direla iradoki du Josu Erkoreka Jaurlaritzaren bozeramaileak. Mobilizazioak desprestigiatzeko estrategia baldin bada, Erkorekak jakin beharko luke ez dagoela egoera miserablean lanean aritu beharrik urtetan murrizten joandako baldintzak eta eskubideak berreskuratzea borrokatzeko; beste batzuk okerrago egoteak ez diola grebari zilegitasunik kentzen (haien eskubideak ere defenda ditzagun, baina ez jarri elkarren aurka, jokaldi makurra da-eta); eta batez ere, irakasleen lan-baldintzetatik harago doazela grebako aldarrikapenak: hezkuntza publikoaren kalitatea bermatzeko eta ikasleen euren heziketa hobetzeko murrizketak gelditu eta inbertsioa Europar Batasunaren batez bestekora handitzeaz ari dira grebalaria, gelako ikasle kopurua handitzeari uzteaz, ikasleak bost egunez irakasle ordezkorik gabe ez gelditzeaz...

Berekoiak?

Erkorekaren ustez, greba hauek ez daude "inolaz ere justifikatuta", baina ezin da baldintzak murrizten jarraitu eta erantzunik ez espero. "Ez da ueña" diote Jaurlaritzatik, ikasle ugari azterketak dituztela argudiatuz, irakasleek ikasleak kontuan hartu gabe berekoi jokatu balute bezala, baina hain juxtu ikasleen euren heziketa ari dira borrokatzen. Eta gainera, zer esatea nahi duzue, Erkorekak ez dirudi egokiena irakasleek baldintza pribilegiatuak dituztela aditzera emateko.

Deskontatutako dirua hezkuntzara bideratu

Bestalde, hezkuntza publikoko grebei lotuta honako mezua zabaldu du hainbategi: "Irakaskuntzan konbokatutako grebaren deialdia jarraitu dugun irakasleen izenean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, hiru egunetan gure soldatatik deskontatuko diguten dirua eskoletan inbertitzea. Ez dugu zilegi ikusten, gure aldarrikapenei esker, erakutsi duen sentsibilitate ezaz gain, gure diruarekin aberastea".

EKONOMIAREN TALAIAN

Film baterako moduko greba



Juan Mari Arregi

Ez. Zutabe honetan ez dugu normalean kulturaz idazten, politika ekonomiko sozial eta laboralak izaten ditugu hizketagai. Gaurkoak ordea, film kritika baten antza izan dezake: zinematografiaren artea erabili baitaiteke klase borrokaren zerbitzura eta euskal langile mugimenduen historia gogoratzeko. Etxebarriko "Bandas"-eko grebari buruz ari naiz, duela 50 urte gertatua, eta orain zinemagile gazte batzuek dokumentalera ekarria. Doxa produktio-etxearen eskutik, Larraitz Zuazo zuzendariak gidatu du *163 egun* filma eta joan den astean estreinatu zuten ETB2-n.

Esanguratsua eta nabarmentzeko modukoa da 1967an oraindik jaio ere egin ez ziren gazteek izan duten ausardia eta pazientzia. 163 egun iraun zuen greba luze hartako protagonistak bilatu eta borroka hura kontatu dute, profesionaltasunez eta zintzoki, izan irudi historikoak erabiliz nahiz eszenak berreginez. Kausa solidarioen zerbitzura jarri dute zazpigarren artea, oroimen historikoa eremu sozialera eta politikora eramanez, langileen mundura. Ederra litzateke langile greba honen antzeko beste historia batzuk ere eramango balira pantaila handira, Euskal Herrian halako asko geratzen baita oraindik modu honetan kontatzeko: zuzenean eta interferentziarik gabe.

Baina zinemagileek ezin dute hortik bizi, ekonomikoki ez omen da errentagarria. Euskal erakundeek halako lanak sustatu eta babestu beharko lituzkete, memoria historikoa berreskuratzeaz ari baikara, kasu honetan klase borrokaren atzean dagoena. Egungo belaunaldien ongizatea, orain krisiak murrizturik badago ere, atzoko greba eta barrikadetatik hasi ziren eraikitzen.